

# Nork egiten du gauza bakoitza?

Ordaindu gabeko etxeko lanetan ematen den denborak lanaren zati handi bat hartzen du, batez ere emakumeen kasuan, zeren tradizionalki halako etxeko lanetan emakumeak aritzen baitira gehienbat. Beraz, abenduko eta urtarrileko grafikoetan agertzen den informazioan oinarrituz, hausnarketa egin behar genuke gaiaren inguruan.

Bestalde, emakumeek eta gizonek etxean egiten dituzten lanek oso lotura estua dute genero-estereotipoekin. Horrek ere estereotipoen gaia jorratzera eramango gaitu. Besteei buruz daukagun pertzepzioa prozesu kognitibo batzuen ondorioa da, eta pertzepzio hori, askotan, estereotipoek baldintzatuta egoten da.

Gure gizartean, taldeak egiten ditugu, eta talde bakoitzari ezaugarri batzuk ematen dizkiogu. Estereotipoen bidez, sailkatu egiten ditugu pertsonak, dagokien taldearen ezaugarrien arabera. Gauzak horrela, estereotipoak onak dira inguratzen gaituen errealitate konplexuko kaosa antolatzen dutenean, baina ez hain onak gure taldekoak ez diren pertsonen buruzko informazioa mugatzen dutenean.

Estereotipoak hiru motatakoak izan daitezke, balorazioaren arabera: positiboak, negatiboak edota neutroak. Adibidez:

Positiboa: Emakumeak sentiberak dira.

Negatiboa: Emakumeak kuxkuxeroak dira.

Neutroa: Andaluziako emakumeak beltzaranak dira.

Jarduera honek gizonen eta emakumeen inguruko estereotipoei buruz hausnarketa egiten lagunduko digu, eta, horrez gain, etxeko lanetan zer egin behar genukeen pentsatzen ere bai.

Eman ikasle bakoitzari 1. koadroaren kopia bat, eta esan:

«Koadroan zaletasun eta ezaugarri batzuk dauzkazue. Adierazi zuen ustez zein diren Sarari dagozkionak eta zein Pablori dagozkionak, eta jarri X dagokion zutabearen».

Eman denbora pixka bat, koadroa osa dezaten. Bukatutakoan, galdera batzuk bota:

- Zalantzarik izan al duzue baten bat markatzean? Zeinetan? Zergatik?
- Baten batean zaila iruditu al zaizue erabakia hartzea? Zeinetan? Zergatik?
- Bidezkoa iruditzen al zaizue zaletasun eta ezaugarriak generoaren arabera sailkatu behar izatea?
- Ezagutzen al duzue Pablorekin lotutako jardueraren bat egiten duen neskarik edo emakumerik? Eta ezagutzen al duzue Sarari lotutako jardueraren bat egiten duen mutilik edo gizonik?
- Ba al dakizue estereotipoak zer diren? (Azaldu estereotipoak zer diren)
- Zuen ustez, estereotipoei jarraituz lotu al dituzue jarduerak Pablorekin eta Sararekin?
- Aztertu denen artean bakoitzean egon litezkeen estereotipoak.
- Adibide horiek kontuan hartuta, zuen ustez garrantzitsua al da estereotipoak ezabatzea?
- Zer ikasi dugu galdetegi honekin?
- Bukatzeko, ondorio batzuk atera, honelakoak:
- «Ez ditugu jarduerak edo zaletasunak neska edo mutila izatearen arabera banatu edo esleitu behar».
- «Ez dago neskena bakarrik edo mutilena bakarrik den jarduerarik».
- «Baztertu egin behar dugu estereotipoek ohitura hutsez agintzen digutena».
- «Kritikoak eta ausartak izan behar gara, lotsarik ez sentitzeko eta benetan pentsatzen duguna adierazteko».



Azkenean, ondorio batzuk atera, hauen modukoak:

- «Ez ditugu lanpostuak neska edo mutila izatearen arabera bakarrik banatu edo esleitu behar».
- «Ez dago neskena bakarrik edo mutilena bakarrik den eginkizunik».
- «Baztertu egin behar dugu estereotipoek ohitura hutsez agintzen digutena».
- «Kritikoak eta ausartak izan behar gara, lotsarik ez sentitzeko eta benetan pentsatzen duguna adierazteko».

**Ondorio hauek klipmetraje baten gidoia prestatzeko balio dezakete.**

# ERANSKINA

## 1. koadroa

<b>Pablori buruz ala Sarari buruz ari gara?</b>	<b>Pablo</b>	<b>Sara</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Bere sentipenak adierazten ditu eta batzuetan negar egiten du</li><li>• Futbolean jokatzen du</li><li>• Moda gustatzen zaio</li><li>• Monopatina erabiltzen du</li><li>• Dantza-eskoletara joaten da</li><li>• Besteengatik arduratzen da</li><li>• Oso umoretsua da</li><li>• Oso maitekorra da</li><li>• Zientziak gustatzen zaizkio</li><li>• Indartsua da</li><li>• Artea gustatzen zaio</li><li>• Autoak gustatzen zaizkio</li><li>• Boleibolean jokatzen du</li></ul>		